

# BERRIGARA

63. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1994, irailak 30



## Uhinetako ahotsa


Txapa Irratiak 10 urte



### LARRAÑAGA Autoeskola




Artakale 22 Tfno 74 14 60 210000



**Amaia.** Prestatzaile Nazionala.  
AEROBIC-A•MUSKULAZIOA•MANTENIMENDUA

# GIARTZU Gimnasioa

Boni Laskurain, 3 ☎ 76 35 71



**Joxean.** INEFen lizentziatua.  
AEROBIC-A•STEP-A•MANTENIMENDUA•  
Asteazken zehar: 17.15-18.00 / 19.15-20.00



**Marisabel Hurtado Sasieta.**




**Mari Carmen.**

AEROBIC-A•STEP-A•MANTENIMENDUA•  
Asteazken zehar: 7.30-8.15 / 8.15-9.00 / 9.00-9.45

**Pili.** Aerobic irakasle titulatua.

AEROBIC-A•STEP-A


Astelehena, asteazkena eta ostirala: 20.30-21.15.



**Gemma.** Prestatzaile Nazionala.  
MUSKULAZIOA•AEROBIC-A•MANTENIMENDUA

## ORDUTEGIA:

7.30-13.00  
14.30-22.00



**Neska-mutikoentzat  
Aerobic-a**

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.  
Tfnoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.

☎ 76 08 19

**Zuzendaria:**

Gorka Elorza.  
**Erredakzioa:**  
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta  
Mikel Elkorobereibar.

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.  
☎ 76 03 97

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,  
Miguel Angel Elkorobereibar, Alex  
Labaien, Iñaki Eraña, Juan Martin  
Elxepuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,  
Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander  
Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika  
Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa  
Bikuña,

**Komikia eta marrazkiak:**

Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon  
Alvarez, Jose Martin Ezenarro  
eta Julian Ezenarro.

**Banaketa:**

Txantxangorri Taldea.

**Tirada:** 3.700 ale.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Copyright:** BERRIGARA

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599


**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.



Aldizkari honek  
Bergarako Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura  
sailaren laguntza jaso du

## Z E R B E R R I D A ?

### JOSEAN AZKARATE-ASKASUA Novedades zinekoa

- Kultur Ekintza  
desagertuta, egongo  
al da zine-klubik aur-  
ten ?

- Bai, Udalaren la-  
guntzaz, ostegunero fil-  
me bat emango dugu,  
arratsaldeko 8etan eta  
300 pta.ren truke. O-  
raingoz "*Adios a mi  
concupina*" (urriak 6)  
eta "*Kafka*" ziurtatuta  
daude eta euskeratu  
berri den "*Alargunen  
gailurra*" ere ekartzeko  
asmoa daukagu.

- Eta zikloak anto-  
latzeko asmorik?

- Hori nekeza izaten  
da eta beti ere asmatu  
egin behar duzu lehen-  
dabiziko filmearekin  
jendea erakartzeko,  
Hala ere, ekar ditzake-  
zun filmeen menpe



egoten da hori. Guk be-  
hintzat Hegoamerikako  
zinegintzari buruzko  
zikloa antolatu nahi  
genuke.

- Bada zine zaleta-  
sunik Bergaran?

- Bai, baina jende  
askok kanpora ere irte-  
tzen du filmeak ikus-  
tera. Nagusiki gazte  
jendea dator.

**"Kultur Ekintza desagertu arren  
zine-klubarekin jarraituko dugu"**

## I T U R R I O N E T I K

### Agustin Aranzabalek bere "peña" izan dezake

Bere koadrilak eta beste hainbat bergarar gaztek  
bultzatuta, Agustin Aranzabal Realeko bergarar  
jokalariak bere "peña" izan dezake hemendik  
gutxira. Dagoeneko zenbait gazte Realeko  
ordezkariekin izan dira hizketan eta Realekoek  
estatutuak idatzi eta egoitza bat izatea komeni  
dela esan die. Anoetako partiduetara urte osoan  
zehar joan ahal izateko Realak tribunan bakarrik  
izan dezaketela lekua adierazi die, baina prezioa  
garesti samarra da: 43.000 pza. urte osoan  
"peña"ko kide bakoitzeko. Aranzabalen lagunak  
aukera ezberdinak aztertzen ari dira.

## ESAN DUTE


"Nekazari  
bikologikoez  
daukagun eragozpen  
haundiena jendea  
informatzea da.  
Jendearentzat kalitatez  
gauza haundia, polita  
eta garbia da. Gure  
letxuga eta barazkiek  
zorriak eduki  
ditzakete, baina  
urarekin kentzen zaie.  
Jendeak zorriak  
ikusten dituenean  
atzera pauso bat  
ematen du kontrako  
informazioa  
daukalako, bizitza  
gauza garbi eta  
aseptiko bat bezala  
erakutsi zaiolako"

**TOMAS  
LARRAÑAGA**  
Lapatza baserriko  
nekazari biologikoa  
EUSKADI IRRATIA

"Gure ase nahia  
helduei zuzenduta  
zegoen. Mundu hori  
prestijiatu beharra  
zegoen, umeentzako  
emanaldiei inolako  
kategoriarik kendu  
gabe. Helduei ere egin  
behar zaie  
proposamena  
antzerkiaren barruan  
subjeneroa izan dena  
bere goi mailara  
iristeko"

**ALBERTO  
IÑURRIETA**  
Taun-Tauneko  
partaide  
EGUNKARIA

Siempre dijo que lo hacía,  
pero nunca dijo qué.




**MENTIRAS ARRIESGADAS**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



**AGARRALO COMO  
PUEDAS 33 1/3**

Igandea: 11.30.

**Zinea**

▼▼ *Terminatoren* arrakastaren ondoren, **James Cameron** zuzendaria eta **Arnold Schwarzenegger** aktorea berriz ere elkarlanean historiako filme garestienez. Espioitza, umorea eta, nola ez, egundoko efektu bereziak nahasten zaizkigu. **Jamie Lee Curtis** (*Un pez llamado Wanda*), ustekabez, bere gizonaren abentura harrigarrietan murgildu beharko da.

▼▼ Aurreko bi zatien ildotik, hemen ere zentzugabeko umorea nagusi. **Frank Debrin** tenienteari (**Leslie Nielsen**) *Oscarren* zeremonia antolatzeko agindua helduko zaio eta, beti bezala, hankaz gora jarriko du parean tokatzen zaion gutzia. Errepartoan **Priscilla Presley, Raquel Welch** eta laister epaituko duten **O.J. Simpson** rugbylari ohia.

**Deiak**

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ **Maite Agirrebeñaren** margo erakusketa Kultur Etxean.

▼ **Senideak** eta **Gestorak** deitutako presoen aldeko manifestazio nazionala urriaren 1ean Bilbon. Irteera 16.15etan Frontoitik.

▼ **Hitzaldia.** "Chiapas gaur egun", asteartean 19.30etan Kultur Etxean. Komite Internazionalistak.

**Ogia**

▼ **Igandea 2:** Ogizun.



**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 30:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Larunbata 1:** Mozos.
- ▼ **Igandea 2:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 3:** Camacho.
- ▼ **Asteartea 4:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 5:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 6:** Estella.

**ZUBIAURRE**  
aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.  
HORMA ARMAIRUAK.  
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.  
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.  
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

**ZAPELAITZ**

*Taberna*

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera  
San Lorentzo 25, BERGARA

**BERGARAKO "AKULU"  
AEK EUSKALTEGIA**

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE  
eta EGA IKASTAROAK  
2, 3 eta 5 ORDU

INFORMAZIO GEHIAGO:  
Masterreka 13, behea ☎ 76 05 18

*Euskarak merezi du!!*

**Mendi Zinemako** Zikloa ikusi ahal izango da Bergaran astelehenetik aurrera. 1979 eta 1985 bitartean Donostian ospatzen zen Nazioarteko Mendiko Zinemaldiak utzitako hutsunea betetzeko asmotan sortu zen Mendi Zinemako Zikloa eta honako hau, Kutxa Fundazioaren eskutik eta Kirol Zerbitzuaren laguntzaz antolatuta da aurten ere eta VIII. edizioa izango da. Ohitura den bezala, Donostian eskeinitako emanaldiez gain, Gipuzkoako beste hainbat herritan ere emango dira filmak, tartean Bergarara helduko direlarik.

Iñaki Ugarteburu Udal Kirol Zerbitzuko ardura-dunaren hitzetan, *"lehen aldia da mendiko zine zikloa honetan zuzenki parte hartzen duguna. Uda aurretik Pol-Pol, JARDUN eta Kutxa berarekin batera antolatuta genuen Mendiko Astearen arrakasta ikusita, Kutxaren eskeintza jaso genuen*

# MENDI ZINEMAKO

## Zikloa

*Astelehen, asteazken eta ostiralean Zabalotegiko aretoan*



Piraguismoak ere izango du tarte mendiko zikloan.

*ziklo honetan parte hartzeko eta ezin genuen pasatzen utzi. Gainera Bergaran mendizaletasuna baundia da eta publiko*

*zabala jaso izan du beti mendiko zikloak. Filme ikusgarriak ikusi abal izango ditugu eta mendiaz gain, piraguismoa eta motordun parapenteari buruzkoak ere badira, denak zinezale eta mendizaleei zuzendutakoak".*

Hiru egunetan 6 filme ikusteko aukera izango da Bergarako Zabalotegi aretoan. Filmeak Sebastian Alvaro (zuzendaria), Eulogia Garcia (ekoizle-a), Francisco Egia eta Eduardo Esteban (argazkia), Jose Rey eta Teresa Vitoria (muntai-a) eta Suso Saizek (musika) osatutako taldeak eginikoak dira eta horra hor programazioa: astelehenean *Ur zuriak* (piraguismoari buruzko 30 minutuko filmea) eta *Erraldoi zuria* (K-2 mendian egina, 30 minutu) emango dira arratsaldeko 7 t'erdietan; asteazkenean *Erre buda boriek* (Shisha Pangma, 30') eta *Gailurra zelaia- ren gainetik* (Shisha Pangma, 30') eta, azkenik, ostiralean, *Haizearen esku* (motordun parapenteari buruzkoak ere badira, denak zinezale eta mendizaleei zuzendutakoak", 30') eta *Haizearen mendia* (Cerro Torre, 30'). Emanaldi guztiak, arratsaldeko 7.30etan.

**Mendia, piraguismoa eta motordun parapenteei buruzko pelikulak ikusi ahal izango dira**

HARATEGIA - URDAITEGIA

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta oilazkoak**

Harane Erreka, 1  
76 32 67 BERGARA

**AGENTZIA:**  
**J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

ZURICH

UNIBER



CAUDAL

HISPANA

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

*Iturkintz Berri*

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

**INSTALAZIOAK:**

**Iturkintza  
Berogintza  
Gasa**

☎ 76 28 04

**MAKAILO**

Makailau kazuelak gertatzen ditugu

**ETXEA**

Ibargarai 15

**Lehentasuna emateaz**

Azkenean inauguratu egin da Oxirondoko azoka berria. Penagarria, baserritarrak, tokiz-tokiko saltzaileak eta larunbatetako erosleak han ez izatea.

Denok badakigu baserritar, tokiz-tokiko eta larunbatetako eroslerik gabe azoka berriak ez duela zentzu haundirik. Gu barik zaila suertatuko da inbertitu duten dirua justifikatzea. Larunbatero hurbiltzen garenak azokari bizitasuna ematen diogunak gara.

Penagarria azoka berria erdi hutsik ikustea. Penagarriagoa ere azoka zahararen ondoan saldu eta erosi behar izatea.

Saiatu naiz, benetan, arrazoiak azmatzen eta ulertzen. Norbaitek (azoka zaharreko kanpokaldean eurpean erosten ari garenetariko batek): "Ez dago arrazoirik, baserritarrak ez zaizkie axola, besterik gabe". Baliteke haietaz ahaztea, haiek ez baitiote Udaletxeari diru-sarrerarik sortzen.

Ranpa dela eta, ezinbestekoa dela edozeinentzat begibistakoa da. Hilabeteke pazientzia eta sakrifizio hori dela eta, lehentasunez galdetu nahiko nuke: kanpokaldean apaintzeak ranpak baino garrantzi haundiagoa du, larunbatero joaten garenok baino interes haundiagoa? Eta, ranpa egiten duzuen bitartean, zergatik ez azoka zaharrean?

Azoka berrira sartu ezinik (baldintza

minimoak betetzen ez direlako), azoka zaharretik botata; eta, gutxi balitz, larunbatero jartzen dituzuen isunak.

Garbi izan behar duzuen, neurri tamalgarri hauek hartu dituzten horiek zera da: kanpoan utzi dituzuenok pentsatzen duzuen baina askoz gehiago garelako: saltzaileez gain, larunbatero erosten dugun guztiok.

Ni neu, larunbatero eurpean erosten dudana aldetik, autoinkulpatzen naiz, salmenta anbulantearekin kooperatzen dudalako.

**N. S. P. (N.A.N.: 51.063.983)**

**EAREN OHARRA**

Irailaren 15eko BERRIGARAN aurreko Osoko Bilkurari buruz PSE-EEko Alvaro Esparzak adierazi zuenaren aurka EAK zera jakinarazi nahi du:

1. Ez da egia EAK PSE-EEK proposaturiko bi puntuok onartu zituenik.

2. EA bat dator PSE-EEren egoitzaren kontra egindako eraso salatzerako orduan.

3. EAK ez du uste eraso haren erantzunkizun zuzena HBri besterik gabe leporatu behar zaionik, hortarako, gutxienez, erasotzaileen identitatea jakin beharko litzateke alde zuretik.

**EUSKO ALKARTASUNA**

**Lehentasuna emateaz**

Pasatako Nafarroa "Kolpez", urtetan Euskal Herria jasaten ari den errepresio polizialaren beste adibide bat izan genuen. Behin eta berriz salatutako egoera hau, argi eta garbi ikusi genuen, ez bakarrik ezagutzen dugunok, baita ikusi nahi ez zutenek ere. Egun guztian zehar, guardia zibilak beraien probokazioetan jendea noiz jausiko zain zeuden. Nork agindu zuen eraso?

Ez al da susmagarria horrenbeste erasorako material prest edukitzea?

Milaka lagunuen aurrean hau egiteko kapaz badira, zer egingo dute komisaldegia zein kartzelatan gure euskal presoekin?

Tontuak gerran hil ziren!!

**HI MAIRU (ANTZUOLA)**

**NAN: 72.456.241**

**Tiira biraka**

**JULIAN EZENARRO**



◆ **Bertso ikastaroa**

JARDUN Elkarteak bertso ikastaroa antolatzeko asmoa du. Horretarako bilera bat egingo da urriaren 6an, arratsaldeko 8etan JARDUN Elkartearen (Masterreka 13an). Interesatuiei animatzeko deia zabaldu nahi die JARDUNek.

◆ **Hika lantzeko ikastaroa**

Antzuolako Idolaz euskara taldeak hika lantzeko ikastaroa antolatu du, gizonezko eta emakumezkoen tratamendua bereiztea eta entzuten diren akatsik garrantzitsuenak zuzentzeko asmoz. Ikastaroa urriaren 24tik 28ra emango da, 7etatik 9etara herriko eskolan. Izen-ematea Gaztetxean, liburutegian edota liburudendan urriaren 17a baino lehen egin beharko da.

◆ **Kitarra ikastaroa**

JARDUNek antolatuta urriaren 15etik azaroaren 19ra bitarteko larunbatetan, 3retatik 7etara Mikel Berasategik kitarra ikastaroa emango du. Izena emateko azken eguna urriaren 10a.

# Zerrajerako agiritegiaren jabe egingo da Bergarako Udala

*Lantegiak azken hamarkadetan izan duen gizarte eta ekonomi iharduera jasotzen du. Plenoan onartu zen.*

**Astlehenean** egini-ko ohizko Osoko Bilkuran, zerrajerako artxiboa gordetzeko erabakia hartu zuen Udalbatzak. Horrela, bada, 1950. urtetik hona zerrajerako iharduera sozial eta ekonomiko gordetzen duen artxiboa Bergarako Udalaren eskuetara pasatuko da. Unión Cerrajera-ko lantegi zaharra itxi zenez geroztik, fabrikako artxiboa desagertzeko zorian zegoen, baina, Kapirixo elkarteak egindako lanari esker eta honek Udalari egindako eskaria aztertu ondoren, Udalak behar den moduan gordetzeko erabakia hartu du. Dokumentuak Udal artxibategian gordeko dira eta ikerkuntza lanetarako oso baliogarriak izango dira aurrerantzean.

Bestalde, Eusko Alkartasunak mozió bat aurkeztu nahi izan zuen Plenoan, baina alkateak ez zuen onartu. Hain zuzen ere, herriko toki batzuetako bizilagunek izaten dituzten ur arazoei aurre egiteko 20 milioi pzt.a. ko dirulaguntza onartzea eskatu zuen Juan Gari Garitanok, EAko bozeramale-



Udalak hartuko du Zerrajerako artxiboa gordetzeko ardura.

ak. Garitanoren esanetan, ura presio gutxirekin helitzen da herriko hainbat tokitara. Ondorioz, garbigailu, presio galdara eta etxeke beste tresna batzuek erabiltzerakoan arazoak izaten dituzte Boluko eta herriko beste toki batzuetako bizilagunek. Eskasia horiei aurre egiteko bizilagunek instalazio berriak jarri behar dituztela esan zuen Garitanok eta Udalari ur zerbitzuagatik ordaintzen dizkieten zergez gain, beste hainbesteko gastua izaten dutela esan zuen.

Alkateak, berriz, Boluko bizilagunen kejen berri izan duela esan zuen, baina ez herriko beste toki batzuetakoena eta arazoari aurre egiteko ur zerbitzuko teknikoek herrian ikerketa bat egina dutela adierazi zuen. Udala kaltetuei laguntzeko prest zegoela gehitu zuen, baina lehenengo kostuak ondo aztertu behar zirela. Azkenik, horrelako proposamenak Hirigintza Batzordean egin behar zirela eta ez Plenoan, esan zion alkateak EAko bozeramalerai.



## PINTURAS BERGARA



**• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...**

**Aranerreka, 32 behea. BERGARA.**  
**Tfnoa eta faxa: 76 11 40**

## ◆ Kikaundiren eskaintza

Kikaundik honako zerbitzu hauek eskainiko ditu 1994-95 ikasturtean: Kikaundi Ludoteka astelehenetik ostiralera eta eskolaurreko 1. mailatik OHoko 6.era; Osintxuko Krabelin Ludoteka OHoko 8. mailara arte; larunbateko ekintzak Bergaran eta Osintxun (goizez); azkenik, Osintxuko liburutegia. Argibide gehiago Kikaundi Ludotekan (San Martin Plaza 4, 2. pisua, 76 05 17).

## ◆ HBren bulegoa

Urriaren 23ko hauteskundeak direla eta, Herri Batasunak, botoa korreoz egin ahal izateko, informazio zerbitzua jarri du Arrano Zaharrean, 11etatik ordu batera eta 6.30etatik 8etara.

## ◆ AEK euskaltegia

AEKko Akulu euskaltegian (76 05 18 telefonoa) matrikula egiteko epea hurrengo astean amaituko da. Klaseak urriaren 6an hasiko dira.

## ◆ Intsumisio eguna

Oiartzunen urriaren 9an ospatuko den Intsumisio egunerako autobusak irtengo dira Bergaratik 9etan. Izen-ematea Pól-Pol, Arrano eta Aldoka-Maldokan.

## ◆ Atxiloketa

Asteazken goizean Ertzaintzak Pedro Zumelaga bergararra atxilotu zuen, apirilaren 24an Audentzi Nazionalak bera detentatzeko emandako aginduari jarraituz. Asteazken arratsaldean Zumelagaren aldeko manifestazioa izan zen.



Obrak gertutik ikusteko aukera izan zuten asteazkenean agintariek.

## Lanbide Heziketa eskolako zentru berria abendurako prest

*1995-96 ikasturtean zabalduko da REMeko ikasleentzat*

Poligonoan, Ipintza Institutua eta Irala Ikastolaren artean dagoen lursailean eraikitzen ari diren Lanbide Heziketa zentru berriaren obren nondik-norakoak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten asteazkenean Victoriano Gallastegi alkateak, Hirigintza Batzordeko zinegotziek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko ordezkariak eta Jesus Mari Larrañaga, Miguel Altuna Institutuko zuzendariak. Joaquin Camacho arkitektoak, obrei buruzko zehaztasunak eman zizkien eta azaro amaierarako ikastetxe berria amaituta egongo dela aurreratu zuen.


Ikastetxe berriak bost solairu ditu: lehenengo bietan, idazkari-tza, bulegoak eta zerbitzuetarako

beste gela batzuk kokatuko dira. Hirugarren eta laugarren solairuetan, berriz, ikasgelak jarriko dira eta azkenengoa, oraingoz utzik geratuko da, etorkizunean gela berriak jartzeko toki premia izanez gero egokitze.

Gimnasioa (kirol ariketak egiteko eta beste era batzuetako ekitaldiak antolatzeke erabiliko dena) eta kirola egiteko kantxak (kanpokaldean, gaur egun haur eskolako ikasgelak dauden tokian) ere izango ditu zentru berriak. Aurrekontua 308 milioi pzt.a.koa da.

Edifizioa bi hilabete barru amaituta egongo den arren, 1995-96 ikasturteetik aurrera hartuko ditu Miguel Altuna Institutuko REMeko ikasleak (14 urtetik gorakoak).

## BERGARA BOLTSAK



✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetariko konfekzio industrialak

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



# Simon Arrieta: 25 urte hil zela

**Miguel Altuna Institutuko aretoa jendez gainezka zegoelarik, ostiralean Simon Arrieta bergarar margolariaren inguruko hitzaldia izan zen, Simon Arrieta hil zeneko XXV. urteurrena betetzen baita aurretan.**

Simon Arrieta 1915eko otsailaren 9an jaio zen Bergaran eta Lanbide Heziketa Institutuan ikasketak burutu eta Eustakio Agirreolearen eskutik margotzen hasi ondoren, Madrilen ikasketak osatu zituen Valentín Zubiaurerekin. Bertan, Ignacio Zuloaga margolari eibartarra ezagutzeko aukera izan zuen eta bere ikasleetako bat izan zen.



**Juan San Martín**

"Oso oroitzapen onak dauzkat, hain gizon alai eta atsegina zen, edozerarako laguntzailea, borondate ikaragarriarekin. Pertsona bezala oso ona zen eta artista bezala ikusi dugu, hizlariak ondo aztertu digu. Erretratuginzan nabarmentzen zen batez ere eta gaur ez daukagu inor halakorik, psikologia ezagutaraztea nekeza da, berak izan behar du psikologoa jaiotzaz eta horretan bazen. Hor du bere meritua".

## *Bergarar pintorearen bizitza eta obrari buruzko hitzaldia izan zen joan zen ostiralean*

Madrilera eta Parisera egindako bidaietan Velázquez eta impresionisten lanak aztertu zituen, 1933an eta 1935ean Donostiako Artista Nobel Lehiaketan saritua izan zen, Gerra Zibilean Iruñea eta Palma de Mallorcako espetxeetan egon zen eta Palman bertan, 1941ean, Arte Ederretako Lehen Erakusketa Nazionalan parte hartu zuen. 1950ean Madrilen instalatu zen, handik 3 urtera Bergarara bueltatu. Ordutik eta bere heriotza gertatu bitartean herriko bizitza kulturalaren aldeko lana egin zuen, bere estudiotik egungo hainbat bergarar margolari pasa zirelarik.

### **Izaera artistikoa**

Ostiraleko ekitaldian, Victoriano Gallastegi alkateak, Jose Mari Larrañaga Miguel Altuna Institutuko zuzendariak, Juan San Martín Ararteko ohiak eta Xabier Sáenz de Gorbea arte kritikari eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak hartu zuten parte. Azken honek Simon Arrietaren izaera artistikoa aztertu zuen diapositiben laguntzaz eta berak azaldu zigunez, "Arrietak planteamendu estetiko ezberdinetan lan egin zuen eta beti ere aurrekoak hobetzeko balio izan zion; bere ezaugarrietako bat naturalitate itogarria eta erretrata-

tutakoa psikologikoki miazteko gaitasuna lirateke. Bere ibilbidean etapa ezberdinak bereizten dira: *lehenbizikoa formazioarena (1931-35), 1935-1943an neokubismo humanista deitzen dudan estilo batean finkatzen da, ondoren eragin akademikoa jasotzen du 1943 eta 1945 bitartean (Velázquezen izpiritua bereganatuz), 1945 eta 1949 artean impresionismoaren eragina jasotzen du (argitasunaren potentziak) eta 50. hamarkadan klasikoa (Velázquez eta Zuloaga) eta pintura suelta, naturalista eta dinamikoagoa orekatzen abalegintzen da. Azkenik, 50eko azkenetan eta 60ko hasieran eskematismoa (lau pinzeladarekin motiboak isladatu) lan-*

*tzen du batipat".*

Sáenz de Gorbearen ustetan, Arrieta ez zen behar bezala errekonozitua izan: "ez zuen pisu baundirik orduko margolaritzan, ez zen oso ezaguna eta oraindik ez ezaguna izaten jarraitzen du. Horren lekuko San Telmon (eta ez beste museo batean ere) ez dago bere lanik eta nere ustez lekuren bat izan behar luke. Figuraren esparruan bere garaiko onenetarikoa izan zen nere ustez. Eraginik izan duen? Ba bere eragina eta dinamismoagatik beste askok pinturari ekin zioten: Okina, Loidi eta abarrek".

Udal museologoak, etorkizunean Simon Arrietari buruzko erakusketa antolojikoak egiteko asmoa aurreratu zuen.



Sáenz de Gorbea, Juan San Martín, Victoriano Gallastegi eta Jose Mari Larrañaga.

# Turismoa erakarriz

*Bergara ezagutzera emateko bisita gidatu bat egin zen ostegunean*

**Turismoarekin** zerikusia duten 30 bat lagun izan ziren aurreko ostegunean Oñati eta Bergarako udalek antolatutako bisita gidatuan. Eguerdian, Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Aranburu udal museologoak eta hainbat zinegotzik Kultur Etxean egindako harreran, alkateak dei egin zien instituzioei eta bereziki Julia Gómez Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendariari Udalak aurrera eraman nahi duen plangintzarekin kolaboratzeko. Udalak, turismoa bultzatzeko, monumentuen gida bat eta tarjeta postalak kaleratu, bisita gidatuak antolatu eta turismo bulego bat jarri nahi du, beti ere jaso daitezkeen dirulaguntzen

arabera.

Harrera ostean, eta ordu t'erdiz, gonbidatuek herrian zehar bisita egin zuten, Xabier Aranburu museologoak San Pedro, Goenkale (Koldo Eleizalderen jaiotetxea), Artekale, Arrese Etxea, Irizar Etxea, Egin-Mallea, Santa Marina eta Plazako monumentuei (Seminarioa, Udaletxea eta Jaurregi Etxea) buruzko azalpenak eman zituelarik. Datorren urtean bisitak antolatzekotan, ibilbidean Ondartza eta Olasoko etxeak gehituko liriteke. Amaieran alkatea pozik azaltzen zen: *"egoera turistikoa ikusita, denon arteko kolaborazioa egon behar da. Jendeak erantzun egin du eta pozik geratu dira ikusitakoa-*



Xabier Aranburu Udal museologoak, bisitatutako tokiei buruzko azalpenak eman zizkien turismo ordezkari.

*rekin. Aurtengo udan, esan didatenez, lehen emaitzak eman dira eta etorkizunerako plan bat*

*egiteko asmoa daukagu; ez bakarrik kanpotarrentzat herritarrek ere jakin dezaten zer daukagun".*



**Julia GOMEZ PRIETO**  
Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendaria

"Aspalditik ezagutzen dut Bergara eta ordua zen erakusten hasteko. Gainera horrek pixkanaka hasten doazen aktibitate batzuk dakartza. Turismo kulturala? Bakoitzak bere baliabideekin jokatu behar du, ahal bada denetarik nahastuz, hemengo paisaiarekin bezala. Turismoa sendotu ahala hobetzen joango gara".




**Victoriano MARTIN**  
Karrantzako alkatea

"Karrantzaren antzekoa da inguru hau, asko gustatu zait. Konexiorik Bergara eta Karrantzaren artean? Interkanbioak egin ditzakegu. Azkenaldian turismoak gora egin du Karrantzan, Pozalaguako kobazoluei esker batipat eta parke ekologiko bat egiteko asmoa dago. Beste sektoreak ikusita, turismoa indartu behar da".



**Lurdes ROMANO**  
Mankomunitateko Turismo arduraduna

"Turismo profesionalentzat, oso erabilgarria izango da bisita hau zertaz bera egiten duten jakiteko. Errekurtso aldetik badakigu hutsune batzuk daudela, ekipamendu kulturala edota alojamendua esaterako. Azken honetan, administrazioaz gain, sektore pribatua ere sartu behar da, inizatiba falta da".



**Santi SAGARZAZU**  
Zestoako alkatea

"Honelako inizatibak ondo daude, ez baitugu behar bezala gure ingurua ezagutzen. Gure turismoa bainuetxe eta ur termalen inguruan mugitzen da. Loturirik daukan honekin? Nik uste dut baietz, zenbat eta oferta gehiago izan hobee. Gu kosta eta turismo erlijiosotik (Loiola) hurbil gauden moduan".



# BERGARAKO

---

# OSASUN Gida

---

## ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ..... ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila. .... ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. .... ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde 28. .... ☎ 76 27 97

## ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo, 4 1.B. .... ☎ 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo, 4 1.B. .... ☎ 76 32 06

## DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. .... ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. .... ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale, 1 1.C. .... ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. .... ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTR., E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. .... ☎ 76 38 54

## HAGIN KLINIKA:

- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta, 6 2. (Lehen notaria zegoen tokian). .... ☎ 76 05 77

## MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi, 1 2. .... ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain, 5 2. E. .... ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. .... ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka, 7 3. A. .... ☎ 76 51 18

## MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain, 3 1.B. .... ☎ 76 37 50

## LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereok)- Barrenkale, 16 1. .... ☎ 76 18 81

## PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotzizitatea) - S. Arrieta, 3 2.E. .... ☎ 76 26 42

## PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. .... ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. .... ☎ 76 41 32

## PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza, 2 1. ezk. .... ☎ 76 26 64

## PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo Klinikoa) - Ramon María Lili, 2. .... ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, pskimotrizitatea). .... ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 30 76

# Ekologia

## Erabilitako pilak

**- Zein da pilen arriskua?**


- Pilekin gertatzen dena, nahiz eta tamainu txikiak izan, sortzen duten kutsadura oso larria dela da. Esan daiteke esku artean egunero erabiltzen ditugun hondakinetatik, arazo larrienak pilak sortzen dituztela. Hau dela eta, lan asko egin beharra dago, jasotzen diren eta erabiltzen diren pilen artean desproporzio nabaria dagoelako.

**- Zer egin duzue horren inguruan?**

- Duela 4 urte, Mendia Bizirik taldeak, pilak jasotzeko kanpainari ekin zion, Bergarako ikastetxe guztiak eta 35 bat dendak parte hartu zutelarik. Bergararren erantzuna ezin hobea izan zela azpimarratu beharra dago. Urteko tonelada bat pila jaso genituen. Honetaz gain, informazioa zabaldu eta gai honetan parte hartzeko gonbidapena luzatu genuen, gaiari berak heltzeko. Honen ondorioz, iaz Mankomunitateak bildutako kutxak ipini zituen, pauso garrantzitsua izan delarik.

**- Zein eratako pilak dira arriskutsuenak?**

- Pilak, edozein mota-takoak, kutsatu egiten dute, batzuk besteak baino gehiago. Kontutan izan behar da, alkalinoak eta botoiak oso arriskutsuak direla, eta beraz, pilen beharra dugunean, hobe dugu pila ekologiko, berde edo ez kutsatzaile bezala saltzen direnak erabiltzea, nahiz eta hauek ere, kutsatzaileak izan. Pila alkalinoak eta botoiak, 2 gramokoak,



**IÑIGO GARITANO**  
(Mendia Bizirik taldekoa)


600.000 litro ur kutsatu ditzakete. Gipuzkoan, gaur egun moeta honetako 200.000 pila kontsumitzen dira urtean, kontsumo hau izugarri goraka dihoan bitartean. Pila hauek zakarrontzira bota ezker, hondatzen hasi eta denborarekin zabaldu egiten dira, barruan duten edukina, merkurioa, kanpora ateratzen dela-

rik. Urarekin nahastean, metil merkurioa oso kutsagarri eta arriskutsua da, elikaduraren katean sartuta kalte egiten baitie landare, animalia eta pertsonari.

**- Zein gomendio emango zeniguke?**

- Ez kontsumitzea ia ezinezkoa dela badakigu, beraz, pilak erabili ondoren, momentuz egin dezakegun bakarra, pilak jasotzeko ipini diren ontzi berezietara botatzea da. Gerora begira, jasotako pila horiekin zer egin izango da arazoa, baina ez jasotzea okerragoa dela argi dago. Bildutako pila mordo horri irtenbidea topatu behar zaio. Jasotzea irtenbidea lortzeko tresna izango da. Berriz ere gogoratu beharra dago pila ekologiko edo berde bezala saltzen direnak, hauek ere, kutsadura sortzen dutela, hori bai neurri txikiago batean, beraz hauek ere kutxa berezi horietan lagatzea komeni da. Oraindik ere, nahiz eta askok gai hau oso zabaldua dagoela pentsatu, jasotzen den pila kopurua txikia da kontsumitzen denarekin konparatuz. Horregatik, jasotzen dutenei hortan jarraitzeko esango genieke, eta oraindik hau egiten ez dutenei, animatu, ohitura sana bait da, bai guretzako eta atzetik etorriko direnentzako.

### "Pila alkalinoak eta botoi erakoak oso kutsagarriak dira"



Erabilitako pilak ontzi eta kutxa berezietan lagatzea komeni da.

**KALEGOI, 19** ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

•Zoruen kutxilatatu eta barnizaketa•

**BERGARESA**

**MARMOLERIA**

**PEDRO SALEGI OSA**

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

**KONDE**

**PANADEROKUA**

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57



Aranzadi Ikastolako irratian ikasle guztiek dute aukera irratsaioak egiteko.

# Uhinen dantza

## *Txapa Irratia eta Aranzadi Ikastolakoa, Bergarako irratiak*

**Joan zen asteburuan Txapa irratiak 10. urtemuga bete zuen eta horregatik hainbat ekintza antolatu zituzten. Halere gure herrian gutxi dira Txapa ezagutzen dutenak. Hurrengo orrietan Txapa ezezik Aranzadi ikastolak matxan jarri duen irratia ere ezagutzeko aukera izango duzue. Horrezaz gain Udalak egindako irratiari buruzko txostena ere aipatzen dizuegu.**

**T**xapa irratiak joan den asteburuan euren 10. urtemuga ospatzeko hainbat ekintza antolatu zituzten, euren lana eta programazioa kalera ateratzeko asmoz. Halere ez dute espero zuten erantzuna jaso, "antolatutako ekintzatan jendeak ez zuen parte hartu, filmean ez, beste ekintzetan jende gutxi izan zen. Ez dakigu zergatik, baina uste dugu Bergarako jendea, gazteria batez ere, nabiko geldik dagoela" dioskue Txapakoei.

Irratiarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute eta horrela, ostegunetik igandera bitartean 15 programa ezberdin entzuteko aukera dago FM-ko 97.0ean. "Programazioari dagokionez danetik dago. Musika, elkarriketak, lehiaketak, euskal literatura, etab. Halere jende asko ez da enteratu berriz hasi garelara eta esan nahi dugu badugula telefono bat jendeak deitzeko".

Txapa irratia "librea" da, ez du baimen ofizialik emititzeko alegia eta es-

katu diegu Txapakoei esateko zer esan nahi duen irrati "librea" izateak: "Hitz gutxitan oso zaila da definitzea. Baina funtsean beste medioetan irretzen ez den jendeak horrelako irratiaren euren gauzak esateko aukera du. Guk herriko hainbat talderi karta bidali diegu programa bat egin nahi duten galdetuaz eta bakarrik pare batek erantzun digute".

Txapan gaur egun, diru aldetik gaizki dabiltaenez, emititzeko behar beharrezkoa den materiala

dute soilik. Bi mikrofono, mahai bat, pletina bat eta telefonoa. Baliabide murrizak izan arren Txapakoei argi dute kalitatezko irratsaioak egin daitezkeela. "Irratsaio on bat egiteko gogoia behar da. Gu irratian afizioz gabiltza eta seriotasun piska bat jartzen bada itxurazko programa bat egin daiteke".

Diru iturriari dagokionez, kopururik handiena Udaletik jasotzen duten subentzioa da. Ondoren euren jartzen duten kuota, hileroko 500 pztako programa bakoitzeko eta azkenik txostena, pegatinak eta kamisetak saldu ateratzen duten dirua dago. "Duela bi urte emisore berria erosi genuen arren materila nabiko zahartuta dago. Mabaia duela 10 urtekoa da eta compact-discak jartzeko premia dugu. Baina horretarako mabaia berria jarri behar da".

Irratiaren funtzionamenduari dagokionez, berau arlo ezberdinetan banatzen da. Diruzaintza, propaganda, Udalarekiko harremanak, mantentzea eta programen kalitatea kontrolatzeko batzordea. "Azken komisio honek programen kalitatea eta funtzionamendua kontrolatzen du. Batzutan 15 tipo josten ziren programa bat egitera eta hori moztu beharra izan genuen. Argi dago seriotasunik ez baldin badago ez goazela inora".

### **Irratia euskara lantzeko**

Duela urte batzuk Aranzadi ikastolako arduradunek ikasleak euskaraz mintzatzeko tresna egokia zelakoan irrati bat

jartzea erabaki zuten. Hasieran, UBiko ikasleei zuzenduta zegoen, baina gaur egun behe mailako ikasleak ere irрати munduan murgildu dira. *"Aurtengorako plangintza orokorrago bat egin dugu. Horren barruan sartuko litzateke, lehenengo mailatik hasi eta BBBko 2. mailara arteko ikasleekin irratsaio batzuk egitea. Antolaketa bat daukagu, bertan bereiztuko lirateke Lehen Derrigorrezko Hezkuntza izango litzatekeena eta bestetik 2. Hezkuntza Derrigorrezkoa. Bakoitzak bere aldetik saioak prestatuko lituzke eta ondoren emisioak egitea izango litzateke"* dio Mikel Alberdik Aranzadi ikastolako irakasleak eta proiektuaren

arduraduna denak. Euren asmoa irratsaioak 15ean behin egitea izango litzateke. Halere oraindik ez dakite zenbaterainoko materiala izango duten. *"Kontutan izan behar da lehen bezkuntzakoak duten materiala ikasgelan egindakoa izaten dela. 2. bezkuntzakoan kasuan, klasean sortutako materialaz gain, eurek gogoko dutena ere sartzen dute eta bien arteko konpaginazio bat egiten saiatuko gara. Beti ere mintzamina landuz eta abal den neurrian Bergarako euskalkiari buruzada bat emanez"* adierazi digu Alberdik.

Hasieran irratsaioak Txapa irratiaren egiten zizuten, eta gaur egun emisorea ikastolan dute.



Irratiarekin, euskara mintzatua lantzea da ikastolaren asmoa.

Baliabide teknikoei dagokienez mahaia, emisorea, bi plato eta pletina bat dute. Ikastolako irratiak FMko 88.1etik emititzen du eta herri osoan entzun daiteke. Emisio

ordua oraindik zehaztu barik dagoen arren Alberdik ordutegi posiblea adierazi digu: *"ikusiz momentu bonetan ikasleek zenbat denbora egiten duten etxean eta ze bizi-modu daramaten, eta normalean eurek egindakoa entzutea nabi izaten dutenez, ordurik egokiena bazkal ordua izango litzateke: eguerdiko 12,45tik 14,45ra, alegia. Zuzeneko emisioak egiteko aukera badago, baina printzipioz grabatuta eskeiniko dugu"*.

**Irratiari buruzko Udaltxostena**

Bestalde, Udalak due-la bi urte Udaltxostena bat jartzeko aukerak aztertzeke informea bat egitea eskatu zion Juan Antonio Migura, Diario Vasco kazetariari. Informearen lehen zatia irratiari buruz



Txapa Irratiak berriz ere ekin dio irratsaioei, FMko 97.0 zentzuan.

antzinako gauzak  
dekoratzeko ideiak

**Rincones**

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxa: 76 52 98

**EXUKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA

gaur egun dagoen legediaren azterketa izan zen. "Hasiara baten irrati kontzesioak emateko eskubidea Estatuak zuen, baina orain udal irrati baimenak Eusko Jaurlaritzak ematen dizkie" esan digu Migurak. Ikerketaren bigarren arloa biabilitate ekonomikoa da eta azkena antolaketari dagokiona. "Gestioari dagokionez, biru aukera ikusten genituen. Udalak irrati gestioatzea, gestio mixtoa eta azkenik, beste elkarte bateri ematea irratiaren gestioa" esan digu txostenaren egileak.

Biabilitate ekonomikoari helduz, informean aipatzen denez, instalakuntza egoki bat egiteko 8 miloi pzta beharko lirarteke. Azterketa egiteko

Euskal Herriko irrati ezberdinak aztertu behar izan ditu Migurak, batez ere Oñatikoa, Durangokoa eta Getxokoa. "Getxo irratiak 200 mila entzule potentzial ditu eta irrati erraldoiei konpetentzia egiten die. Oñatikoa, al-diz, txikiagoa da. Azken hau izan daiteke Bergararekin antz handiena izan dezakeena".

Bestalde, Luis Abajo kultura zinegotziari galdetu diogu nola dagoen irrati lizentziaren eskaera eta zera aiderazi digu; "duela bi urte eskatu genion Madrili irrati frekuentzia bat emateko eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Gure asmoa frekuentzia legezatu bat izatea da eta ondoren ikusiko genuke ze irrati mota jarri".

**Osteguna**

- 19.00: JKE
- 20.00: Mme
- 21.00: Bihar ehizara noia
- 22.00: Antartika hementxe hasten da

**Ostirala**

- 19.00: Iluntzean Rocka
- 21.00: Eritziak
- 23.00: Misterios para no dormir

**Larunbata**

- 11.30: Carpe Diem (13.30ak arte)
- 20.00: El sotano de Alicia

**Igandea**

- 16.00: Epilogo
- 17.00: Espazioko sikonautak
- 18.30: Puff! (O.M.P.S.)
- 20.00: Wayne's world
- 22.00: Esta ciudad nunca duerme

# PRESTAKUNTZA PLANA

1994/1995

IKASTARO ESKAINTZA

**IKASTAROAK**

**IRAUPENA**

**HASIERA**

• WORD PERFECT (Testu tratamendua) .....	• 40 ordu	94-10-10
• KALKULO ORRIA (Lotus 1. 2. 3) .....	• 40 ordu	94-11-21
• OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA .....	• 40 ordu	94-10-10
• AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK .....	• 40 ordu	94-11-21
• ZENBAKIZKO KONTROLA "TORNUA" .....	• 40 ordu	94-10-10
• ZENBAKIZKO KONTROLA "FRESA" .....	• 40 ordu	94-11-21
• PRODUKZIO ETA KOSTUEN KONTROLA .....	• 40 ordu	94-10-10
• MANTENIMENDU INTEGRALA M.A.O. ....	• 24 ordu	94-11-14
• KALITATE INTEGRALA .....	• 18 ordu	94-12-12



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia Departamendua




Tfnoa: 76 24 91 Faxa: 76 38 41

Miguel ALTUNA (ELEMENTALA)

institutua

BERGARA

# Irratia entzuteko ohiturarik baduzu? Zein irrati emisora?




**Jesus Barruso**  
63 urte, medikua

Bai, goizean goiz eta gauean. Radio Euskadi, Herri Irratia eta COPE entzuten ditut batez ere: Torrelledó, Mariano Ferrer, La Linterna, José Maria García...



**Mertxe Laskurain**  
64 urte, langilea

Ez daukat irratia entzuteko ohitura haundiegirik, telebista sarriago ikusten dut. Eguerdietan Herri Irratiko kirol saioa entzuten dugu etxean.




**Zuhaitz Zubia**  
12urte, ikaslea

Batzuetan. Radio Euskadi batez ere. Txapa Irratia ere entzun izan dut, baina orokorrean, telebista nahiago dut.



**Maria Luisa Blázquez**  
44 urte, etxeakoandrea

Goizean entzuten dut etxean. Loiola Irratia batez ere. Irrati aparailu zaharra daukat eta emisora hori da ondoen hartzen dena.



**Eusebio Ormaetxe**  
64 urte, jubilatua

Ez naiz oso irratizalea. Gauean entzuten dut batez ere. Radio Euskadi eta Herri Irratiko informatiboak jartzen ditut.



**Laura Martín**  
15 urte, ikaslea

Normalean ez dut irratirik entzuten. Etxean aitak jartzen du eta orduan entzuten dugu, baina ez daukat irratia entzuteko ez astirik ezta interes berezirik ere.

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

**JOSEFINA**

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskoziuri, 6 ☎ 76 56 62

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK


**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

**BERGARA**





## Kilometroak 94

Duela hainbat urte, Beasaingo jende kementsuak Kilometroak lehen ekitaldia antolatzeari ekin zionean, inork gutxik pentsa zezakeen gaur egun ikastoletan bizi dugun egoera tamalgarria puntu honetara iritsi zitekeenik.

Urte hauetan zehar, ikastolek eskola eredu berri baten zutabeak landu zituzten, eta gizarteari eskeini argitaratutako zenbait liburu eta txostenen bidez. Administrazioak berriz, eskola publiko nahiz pribatuaren eredu bakarrak berak erabakitakoak direla, eta ikastolek bata eta bestearen artean aukeratu behar dutela eta kitto. Hau besterik ez genuen behar! Zer eta gizartea hastea administrazioari proposamenak luzatzen. Une latzak igaro genituen, eta ikastola batzuk administrazioak diseinatutako sare publikoan sartzera erabaki zuten, barruan gehiago egin zitekeelakoan. Beste batzuk gauzak kanpoan jarraitu behar zela, aukera hobea zelakoan.

Handik gutxira ezagutu nuen berri batek erakutsi zidan gure planteamentua ez zela ero ameslari batzuren. Ingalaterran hainbat ikastetxe publiko pribatizatu egin ziren 1933. urtean. Hango irakasle bati hori nola zitekeen galdezterakoan, bera lanean ari zen ikastetxeak, ordena erlijioso batekoa, pribatizatzeke erabakia hartu zuela esan zidan.

Beraz, Ingalaterran posible bada ordena erlijioso baten titularitateko ikastetxe publikoa izatea, zergatik ezin da hemen partaidetza sozialeko ikastetxe bat publikoa izan? Zergatik ezin da hemen titularitate konpartituko eskola publikorik amestu? Zer diote honi buruz mugimendu sozialek eta gizarte zibilaren partaidetzaz ahobetez hitzegiten dutenek? Amestutako eskola berri hori lortu arte Kilometroakara joaten jarraitu beharko dugunaren beldur naiz. Aurten Legazpira.

**Iñazio ARREGI**



## Hegaluzea

Hegaluzearen arrantzak ados jarri gaitu bolanten aurka gure ahotsak altzatzerakoan. Itsasoan, gauzak ez daude batere errez arrantzaleentzat eta adibidea pasa den as-teburuan dugu: Kantauri osoko flota porturatu zen oztopoak besterik ez baititu aurkitzen itsasoratzen den bakoitzean.

Bolanten erabilpenak sortzen duen arazoaren konponketa zure eskuetatik kanpo izan arren, erantzuna behar du eta epe laburrean. Uztaileko istiluak gertatu zirenetik ez da aurrerapauso garrantzitsurik eman, baina arrantzaleekiko gure elkartasuna adieraziz gain, zerbait gehiago exijitu genezake: Europan gure interesak eta gure arrantzaleen interesak ondo defendituak izatea. Eta orain arte behintzat, Luis Atienza nekazal eta arrantza ministroak Bruselan esan diotenarekin bueltatu da.

Argi dago arrantza sektorea berregituratu egin behar dela Europa mailan eta argi dago, era berean, gure interesak defendituko dituzten ordezkariak bidali behar direla Bruselara.

**Ane Miren LIZARRALDE**

**ARREGUI, E.M.**



**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

**BOLINTXO**

**Okindegia**

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4 EIBAR  
☎ 79 63 42 ARRASATE

**Pepelu**

**Ileapaindegia**

Zurradero, 2 behea.  
☎ 76 43 07

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34



Pagoeta, Zarautzeko Itsas Natura, Loiolako Umeen Museoa, Oñatiko Natur Eskola, Artikutza, Ulia, Udala, Sastarrain, Eskoriatza eta Tolosako ingugiro eskoletako ordezkariak izan dira ikastaroan. Argazkian, ingurugiroko profesionalak ponentzia bat jarraitzen asteazkenean.

### Ingurugiroa lantzen

Ingurugiroko 39 monitorea for-  
mazio ikastaro bat egin dute **Ipin-  
tza Institutuan** irailaren 1etik  
urriak 4, astelehenera arte. Aipa-  
tutako monitorea, lehen eta 2.  
zikloko ikasleei zuzenduta 1982tik  
sortu izan diren ingurugiro esko-  
letan lanean ari dira. Urtero  
15.000 bat ikasle hurbiltzen dira  
eskola horietara ingurugiroa ho-  
beto ezagutu ahal izateko. Pentsa  
dezagun orain ikasle horiek eta  
ingurugiroak berak ere eskertuko  
dutela monitoreek esperientzia  
ezberdinak ezagutzeko egindako  
ikastaro hau.

### Bi ur tanta bezalakoak

Bergaran eta beste zenbait herritan 500 pta.ko **txanpon faltsuak** aldatzeagatik **Ertzaintzak** Lasarteko lau lagun atxilotu zituen Deban. Igande arratsaldean, bi neska gaztek 500eko hainbat txanpon aldatzea lortu zuten gure herriko hainbat tabernatan eta tabernariak pisu, soinu eta materialagatik faltsuak zirela ohartu ondoren, Ertzaintzari horren berri eman zioten. Ertzaintzak aipatutako lau lagunak atxilotu eta 16 urtetik behera-koak aske utzi zituen. Atxiloketa gertatu zenean, furgoneta batean 12 pertsona zihozen eta ertzainek 220 txanpon eta biletetan 188.000 pta. topatu zituzten. Bergaran 80 bat txanpon aurkitu dira orainarte.



Goiko argazkian txanpon faltsu bat (eskuinean) eta benetako beste bat. Bistara, behintzat, ia diferentziarik ez bata eta bestearen artean. Adi beraz!!

**ONENA**

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

**Mekolalde**

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A  
U  
T  
O  
A  
K



### Haur kantatarako prestatzen

Bergarako **Musika Eskolako haur abesbatzak**, azaroaren 20an Donostiako **Anoeta Belodromoan** egingo den **Kantatan** hartuko du parte, Gipuzkoa osotik etorritako beste abesbatza batzuekin batera. Guztira, 2.000 haur inguru bilduko dira aurrean lehen aldiz antolatzen den Kantatan eta "Mitoen sintonia" izeneko pieza eskainiko da. **Eskudero** maisuak idatzitako lana, Aita Barandiaranek euskal mitologiari buruz (Tartalo...) idatzitako artikuluetan oinarrituta dago. Kontzertuarekin **Migel Barandiarani** omenalditxo eskaini nahi dio Gipuzkoako Abesbatzen Elkartek, ikuskizunaren antolatzaileak. Anoeta-ko eskenatokian, 2.000 haurrez osatutako abesbatzaz gain talde instrumental bat ere izango da, guztiak **Juanjo Menaren** zuzendaritzapean. **Cristina Larrañagak** zuzentzen duen Bergarako Musika Eskolako Haur Abesbatza maiatzetik ari da entsaiztzen eta urriaren 8an Beasainen eta azaroaren 5ean Urnietan, entsaio orokorra egingo dute probintziako beste abesbatzekin batera. Ekitaldirako sosak ateratzeko kamisetak (900 pzta.) eta pinak (200 pzta.) salgai jarri dira Musika Eskolan.



Goiko argazkian Musika Eskolako Haur Abesbatzako neska-mutiko taldea. Behean, salgai jarri diren kamisetak eta pinak.

## Zertan dibardute ba?



### Mikel Zubimendi

25 urteko bergararra izango da herriko ordezkari bakarra datorren urriaren 23ko hauteskunde autonomikoetan. Zubimendi Herri Batasunaren Gipuzkoako zerrendetan 6. postuan aurkeztuko da, "praktikan 5.a izango naizen arren, orain 5. postuan dagoen Begoña Arrondo preso hernaniarra ezin izango baita legalki aurkeztu". Mikel Zubimendi Zuzenbidea ikasten ari da Donostian eta orain 8 urtetik Jarraiko militantea da; bertan bozeramale lanak betetzen ditu Joseba Kamio eta Jon Salaberriarekin batera.

**LONBIDE**  
**OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**



**DEBA**  
**GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA**  
**AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

# Enrike Zelaia

**Bergara K.E.ko monitorea eta orain dela 6 urtetik Udaleko langilea, Enrike Zelaia bergararrak (37 urte) futboleko epaile eta marrazain lanak bete izan ditu preferente mailan.**

- Zergatik arbitro?
- Horren falta dagoelako eta gustatu egin zaidalako.
- Etxean eta lagunek zer esan zizuten?
- Zoratuta nengoela.
- Epaileak beltzez ala koloredun kamisetekin?
- Koloredun kamisetekin.
- Epailerik onena eta txarrena?
- Urrio eta txarrena Garcia de Loza.
- Epailea ala marrazaina?
- Marrazaina.
- Defentsa ala aurrelarien alde?
- Gehienetan aurrelarien alde.
- Futbol zelaietan hesirik bai ala ez?
- Bai.
- Irten zara inoiz korrika?
- Bai, Unben, Eibarren. Banderinarekin defendidu behar...
- Lorarik bota dizute?
- "Gordito".
- Inguruko afiziorik onena eta



*"Arbitro falta dagoelako eta afizioagatik hasi nintzen partiduak zuzentzen; behin atera naiz korrika futbol zelai batetik. Orain, berriz, ez dut futbola hainbeste jarraitzen. Amets bat? Euskaldunen artean elkartasuna izatea"*

**txarrena?**

- Onena Deba Garaian. Txarrena kostan.

**- Entrenamendurik egiten duzu?**

- Batere ez.

**- Eta jokoa gertutik jarraitzeko?**

- Oso txarto, horregatik laga dut.

**- Zenbat partidu ikusten dituzu astero?**

- Lehen hiru bat. Orain, nobixarekin, bat ere ez.

**- Nobixari egindako lehen oparia?**

- Eraztun bat.

**- Berarekin Zestoan ala Bergaran?**

- Donostia eta Zumaian.

**- Diskotekak ala tabernak?**

- Tabernak.

**- Zinera bakarrik ala lagunduta?**

- Lagunduta.

**- Lanerako sasoirik onena?**

- Uda.

**- Bergara garbi ala zikin dago?**

- Zikin, beste herrien antzera.

**- Mitin politikoetara joaten zara?**

- Ez.

**- Amets bat?**

- Euskaldunen artean elkartasuna egotea.

**- Ondo lo egiten duzu?**

- Ez.

**- Cervital relax burukoa erosi duzu?**

- Ez, baina pentsatzen nago.

# Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK,  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100  
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K  
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,  
ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK,  
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK,  
HI-FI EKIPOAK,  
SUPER TRINITRON TB.


BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

# EGUZBITZA

## ERRETEGIA

- Txuletak, kokotea, itxas sapua, ehiza...
- Bataio eta jaunartze bazkariak
- Jaiegunetan enkarguak hartzen ditugu

Aranerreka, 30  
☎ 76 56 03



# ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## Galde debalde

### MARIA PILAR GALDOS

Aurreko Galde Debalden Bergarako semerik ezagunenetarikoa, Agirreko San Martin, hain zuzen ere, Japongo zein herritan gurutzatu eta hil zuten galdetu genizuen. Erantzuna: **Nagasaki**.

**MARIA PILAR GALDOS**ek jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **SANTOS ETXEAK** emandako saria. Zorionak **MARIA PILAR**ri eta besteok segi jokatzeko, ea hurrengoan suerte hobea duzuen.

# SANTOS

## IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOAK

Koloretako TB, bideoa, soinua, elektragailuak, antenak, sukaldeak altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA  
Tfnoa eta faxa: 76 26 10

# Zubikua

## JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



MARIA PILAR GALDOsek jaso du aste honetan SANTOS ETXEAK emandako saria.



## EGUZKITZA

### ERRETEGIA

- Txuletak, kokotea, itxas sapua, ehiza...
- Bataio eta jaunartze bazkariak
- Jaiegunetan enkarguak hartzen ditugu

Aranerreka, 30 ☎ 76 56 03

Hurrengo Galde Debaldeko saria  
EGUZKITZA ERRETEGIAK  
emango du.

# Galde Debalde

### Aste honetako galdera:

Aurreko astean uda amaitu eta udazkenean sartu ginen. Eta udazkenaren etorrera, eguraldiarekin baino, larunbateko ordu aldaketarekin somatu genuen. Udako arratsalde luzeak ahaztu eta zertxobait lehenago etxeratzerantz bultzatzen duten egunak iritsi dira. Ordu aldaketarekin gora eta behera ibiltzen garenez urtean zehar, horri buruzko galdera bat prestatu dizuegu aste honetarako. Ea asmatzen duzuen!!

**Zein da urteko gaurik luzeena eta beraz egunik motzena duen eguna?**



\_\_\_\_\_

izena

\_\_\_\_\_

abizena

\_\_\_\_\_

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



## Lehen maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. aurk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	2	1	1	0	0	13	4	
2. Madura	2	1	1	0	0	9	3	
3. Mongatxurra	2	1	1	0	0	8	2	
4. Bar Canalejas	2	1	1	0	0	4	2	
5. Angiozar	2	1	1	0	0	3	2	
6. OH Zerezos	0	1	0	0	1	2	3	
7. Ogizun	0	1	0	0	1	2	4	
8. Uve Bikoitza	0	1	0	0	1	2	8	
9. Etxagi	0	1	0	0	1	3	9	
10. Guadalest	0	1	0	0	1	4	13	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. Kabia	2	1	1	0	0	17	2	
2. Pagomendi	2	1	1	0	0	7	3	
3. Arloteak	2	1	1	0	0	4	2	
4. Bildurbarek	2	1	1	0	0	5	4	
5. Ozaeta	2	1	1	0	0	1	0	
6. Revienta	0	1	0	0	1	0	1	
7. Ufala	0	1	0	0	1	4	5	
8. Usoa	0	1	0	0	1	2	4	
9. Os Jardineiros	0	1	0	0	1	3	7	
10. Arkupe	0	1	0	0	1	2	17	

## Bigarren maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. Krai	2	1	1	0	0	6	1	
2. Kriterium	2	1	1	0	0	4	1	
3. Nahikari Hool.	2	1	1	0	0	2	0	
4. Txipiron	1	1	0	1	0	1	1	
5. Kriston Potr.	1	1	0	1	0	1	1	
6. Necrofilicos	0	1	0	0	1	0	2	
7. Cons. Bergara	0	1	0	0	1	1	4	
8. Paok San Juan	0	1	0	0	1	1	6	
9. A Ze Flaxa	0	0	0	0	0	0	0	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Etxenagusia	2	1	1	0	0	12	3	
2. La Juve	2	1	1	0	0	6	1	
3. Igandekoak	2	1	1	0	0	6	1	
4. Amozkibar	2	1	1	0	0	4	0	
5. EH Biterrak	0	1	0	0	1	0	4	
6. Labegarieta	0	1	0	0	1	1	6	
7. Shaktale	0	1	0	0	1	1	6	
8. La Txupeta	0	1	1	0	0	3	12	
9. Aldoka Maldoka	0	0	0	0	0	0	0	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Hartu Zamak	2	1	1	0	0	6	2	
2. Soropotroak	2	1	1	0	0	4	2	
3. Eri	2	1	1	0	0	5	4	
4. Kirolezaleak	2	1	1	0	0	1	0	
5. Pikapiedras	0	1	0	0	1	0	1	
6. Ezinleike	0	1	0	0	1	4	5	
7. Ari Ari	0	1	0	0	1	2	4	
8. Patxaran Team	0	1	0	0	1	2	6	
9. Pata Negra	0	0	0	0	0	0	0	

## emaitzak

- OH Zerezos-Angiozar **2-3**
- Errotagain-Guadalest **13-4**
- Etxagi-Madura **3-9**
- Bar Canalejas-Ogizun **4-2**
- Mongatxurra-U. Bik. **8-2**

- Usoa-Arloteak **2-4**
- Ozaeta-Revienta **1-0**
- Arkupe-Kabia **2-17**
- Pagomendi-Os jardin. **7-3**
- Bildurbarek-Ufala **5-4**

- Kriterium-C. Bergara **4-1**
- Txipiron-Kriston Potr. **1-1**
- Krai-Paok de San Juan **6-1**
- Nahik. Holl-Necrofilicos **2-0**

- Amozkibar-EH Biterrak **4-0**
- La Juve-Shaktale **6-1**
- Labegarieta-Igand. **1-6**
- La Txupeta-Etxenag. **3-12**

- Pikapiedras-Kirolezaleak **0-1**
- Ezinleike-Eri **4-5**
- Hartu Zamak-Patxaran T **6-2**
- Ari Ari-Soropotroak **2-4**

## partiduak

### LARUNBATA

Barruan  
**09.00: (Ufala)**  
 Labegarieta-Etxenagusia  
 Kanpoan  
**10.00: (Uve Bikoitza)**  
 Ufala-Pagomendi  
**11.00: (Bildurbarek)**  
 Uve Bikoitza-OH Zerezos  
**12.00: (OH Zerezos)**  
 Kabia-Bildurbarek OPEL/LAM  
**13.00: (Kabia)**  
 Aldoka Maldoka-La Juve

### IGANDEA

Barruan  
**09.00: (Nahikari Hooligans)**  
 Paok de San Juan-Kriterium  
**10.00: (Shaktale)**  
 Nahikari Hool-Kriston Potruak  
**11.00: (Revienta)**  
 Shaktale-La Txupeta  
**12.00: (Os Jardineiros)**  
 Revienta-Arkupe  
**13.00: (Arkupe)**  
 Os Jardineiros-Usoa  
**16.00: (Bar Canalejas)**  
 Ogizun-Mongatxurra  
**17.00: (Guadalest)**  
 Madura-Bar Canalejas  
**18.00: (Madura)**  
 Guadalest-Etxagi

**OHARRA:** Parentesi artean partiduak arbitratu beharko dituzten ekipoen izenak.



# MENDI ZINEMAKO

## ZIKLOA

- Urriak, 3 astelehena
- Urriak, 5 asteazkena
- Urriak, 7 ostirala

### SARRERA DOAN

- Zabalotegiko aretoa
- 19.30etatik aurrera

#### **URRIAK, 3 ASTELEHENA**

- "UR ZURIAK". Piraguismoa. 30 minutuko iraupena.
- "ERRALDOI ZURIA". K-2. 30 minutu.

#### **URRIAK, 5 ASTEAZKENA**

- "ERRE BUDA HORIEK". Shisha Pagma. 30 minutu.
- "GAILURRA ZELAIAREN GAINETIK". Shisha Pagma. 30'.

#### **URRIAK, 7 OSTIRALA**

- "HAIZEAREN ESKU". Motordun parapentea. 30 minutu.
- "HAIZEEN MENDIA". Cerro Torre. 30 minutu.



**BERGARAKO UDALA**  
**UDAL KIROL ZERBITZUA**  
☎ 76 59 57



## URRITIK AURRERA KIROLA EGITEKO AUKERA

- **AEROBIKA • UR-AEROBIKA •**
- **MANTENIMENDU GIMNASIA • MANTENIMENDU GIMNASIA URETAN • IGERIKETA • TENISA •**
- **IHARDUERA FISIKO EGOKITUA • eta abar...**

*Zatoz lehen bait lehen Udal Kirol Zerbitzura!!*



# Iban Rodríguez, Espainiako txapelketaren bila

*Bi proba jokatzeko zain, 'Clio 16 balbula'n lehenengo*

**Iban Rodríguez** auto gidari bergarra fin dabil aurtengo denboraldian. Renault etxeak antolatzen duen *Clio 16 balbula* kotxeen Espainiako txapelketan, sailkapenaren buruan aurkitzen da, txapelketa amaitzeko bi froga geratzen zaizkionean (urriaren 23an eta azaroaren 6an Jaramako zirkuitoan jokatuko ditu). Ibanek 6 froga jokatu ditu dagoeneko eta hirutan irabazle gertatu da (Montmeló, Jerez eta Albaceten), Montmelón jokatu-tako beste froga batean bigarren izan zen eta Calafaten beste kotxe batekin topo egin on-

doren, 6. postuan sailkatu zen. Bestalde, kotxeak kanbioak puskatu ondoren, erretiratu beharra izan zuen Albaceten jokatu-tako beste froga batean.

Begararrak 11 puntu ateratzen dizkio bigarren sailkatuta dagoen Jordi Cardoni katalandarrari eta urriaren 23an Jaraman jokatu-tako den Espainiako Txapelketa irabazi eta *Clio 16 balbula* txapelketa ere poltsikoratzea da bere helburua.

Gastea den arren, 22 urte ditu, urteak daramatza zirkuitoetan korritzen. Karretan ekin zion eta orain dela bi urte *Clio*

*Iniciación* txapelketako Espainiako txapelduna izan genuen. Iaz hirugarren sailkatu zen *Clio 16 balbula* txapelketan eta aurtun podiumaren goreneko mailara iritsi nahi du. Datorren urtean, berriz, *Citroen ZX* txapelketan aritzea da bere helburua, gaur egun Pablo Irizar ari den maila berean, eta aurrerago *Williams Renault* kotxea gidatzen, rallietan ibiltzeko gogoz irrikatzen dago.

## Martin Egaña bikain

Bestalde, Martin Egaña ere denboraldi ona egiten ari da *Citroen AX GTI* kotxea gidatzen. Orain dela gutxi, Alcañizen jokatu-tako froga irabazi zuen eta Espainiako txapelketako sailkapen nagusian 4. postuan dago une honetan. Bere anaia Juan Antonio ere *AX GTI* txapelketako karrerak korritzen ari da aurtun.

Pablo Irizarrek, berriz, arazo ugari izan ditu aurtun kotxearekin eta entrenamenduetan hiru lehenengoen artean ibili den arren, froga ofiziale-tan ez da aurreneko postuetan izan.

## KINIELA BERRIA

Bergara Kirol Elkarteak futbol kiniela bat antolatuko du. Aste honetatik aurrera jarriko da martxan eta 7 partidutako emaitzak (1, X edo 2a jarriz) asmatu beharko dira. Apostu bakoitzak 100 pta. balioko du, larunbatean 3retan bukatuko da epea eta ondoko tabernetan bete daitezke: Antxoni, Dixula, Deportivo, Amilotx, Kiroldegia, Toki-Eder, Toki Ona, Pizinetako taberna eta Azpeitxi. Saritan jasotakoaren % 75a banatuko da.

## KARTELDEGIA

Larunbatean ondoko futbol partidu hauek jokatu-tako dira: lehen errejonaleko Bergara-Anaitasuna (16.30etan Ipintzan), Bergara-Almen (2. jubenila, 10etan) eta Bergara-Hernani (infantilak, 11.45etan). Larunbatean, 6etan, eskuz banakako Bergara-Billabona (juniorrak) pelota partidua Osintxun.



Iban Rodríguezek Jaraman lortu dezake Espainiako txapelketa.

## KONTSULTA BERRIA

**Cristina Garciandia Mugica**

DERMATOLOGIA, BERNEOLOGIA, MEDIKU KIRURJIKOA

## SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon Maria Lili, 2. Ate nagusia. ☎ 76 59 39  
Lagunaro Aseguruak Osasun Laguntza

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

**Tomas Ezalaga**

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Papel margotuak
- Mokatak eta tapizatuak



*Labegaraietako eskolako ikasleak Donostian. 1950.*

**G** abonak oraindik urrun egon arren, horra hor Altos Hornoseko eskolako ikasleak Donostiara gabon kantak abestera joan zireneko argazkia. Argazkia 1950 urtean Donostian bertan ateratakoa da eta honako hauek dira argazkian agertzen direnak.

Ezkerretik eskumara:

**Aurreko ilaran:** Juan Miguel Urkiola, Jose Luis Altzerreka, Emilio Alberdi, Martin Agirre, Gregorio Ezpeleta, Luis Mari Gallastegi, Santiago Uribetxeberria eta Javier Agirreolea.

**Atzeko ilaran:** Epifanio Abarzuza irakaslea, Luis Ezpeleta, Martin Juaristi, Iñaki Goikoetxea, Gregorio Garitano, Juan Jose Oiarzabal, Miguel Mendibil eta Jose Arietaleanizbeaskoa.

*Argazkia: Emilio Alberdi*

**ANTIA**

ARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri,  
bildots, untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA



**ETXE BERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauzez).

**Garajea** salgai Torrekuan. ☎ 76 18 82.

**Pisua** salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

**Pisu** amueblatua salgai Bolun. ☎ 76 10 75 (gauzez).

**Pisua** salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Pisu** amueblatua alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

**Pisua** alokatzen da Zubiaurren. ☎ 76 13 85.

**Garajea** salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Garajea** saldu edota alokatzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

**Pisua** salgai Martokua kalean. ☎ 76 14 60.

**Pisua** salgai Martokua 18an. ☎ 76 00 51.

**Pisua** salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

**Pisua** alokatzen da Kruz Gallastegi kalean. ☎ 76 49 87 (eguerdian).

**Pisua** alokatzen da Zabaloategin. ☎ 76 58 91.

**Garajea** salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Pisua** salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13 (goizez).

**Pisua** alokatzen da Irizar ibilbidean. ☎ 76 21 28.

**DENETARIK**

Ikasturte honetarako **pisu bila** nabil Gasteizen. ☎ 76 28 17.

**Opel Kadett** 1800 bat salgai. **SS-AH.** ☎ 76 58 28.

**Saguzaharrak** ikusten badi-tuzu, deitu. ☎ 76 50 11.

**Ford Fiesta** Ghia SS-T salgai. ☎ 76 15 40 / 16 18.

**Ume kotxea** salgai (altua eta osorik). ☎ 76 57 74.

Bi neska gara eta **pisua konpartituko** genuke Bilbon. ☎ 76 50 67 (Jaione).

**Korredore** bizikleta salgai. ☎ 76 54 24.

**Bi neska** behar dira Donostian (Antiguon) **pisua osatzeko.** ☎ 76 21 09.

21 urteko **neska batek** edozein motatako **lokalak garbituko** lituzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

**Bi bizikleta** salgai, 1-3 urte (plegablea) eta 3-6 urtekoentzat. 5.000-6.000 pzta. ☎ 76 25 99.

**Algortan pisua osatzeko bi neska** behar dira. ☎ 76 41 59 (Amagoia).

Triall Ossa (350 cc.) **motoa** salgai. ☎ 76 37 42.

**Lorategiak** zaindu edota **konpontzeko** lanak egiten ditugu. ☎ 76 34 21.

**Siberian Husky** txakur bat **galdu** dut Karakaten. Sarituko da. ☎ 10 18 96.

**Opel Corsa** 1200 kotxea salgai. (SS-AJ). ☎ 76 29 91.

**Ordenadore** merke bat **erosiko** nuke. ☎ 76 08 19.

**LANA**

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

**OHO** eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

**Etxebizitzak** garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

**Haurrak** zaindu eta **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 45 10 (Jaione).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 42 36 (Arantza).

**OHO** eta **Ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Neska-mutikoak** zainduko nituzke. ☎ 76 29 81.

**Ingeles** Filologian lizentziatua, **ingeles klaseak** emango lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 31 36.

**Matematika** finantziario klaseak. ☎ 76 05 43.

**Aleman** klaseak Tituloduna. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Neska** mutikoak zaindu eta **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 25 81 (Leire).

**OHO** eta **LH** klaseak. Irakasle titulatu. ☎ 76 27 17 (Alex Gardoki).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**Hildakoak**

**Amalia Benitez Moto**  
irailak 23, 65 urte  
**Kruz Azkarate Zabaleta**  
irailak 25, 78 urte

**Jaiotakoak**

**Iban Duran Hervas**  
irailak 11  
**Lander Osa Dorronsoro**  
irailak 19  
**Mikel Arroyo Iztueta**  
irailak 26

Afseden zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

**EZPELETA**

etxea

Harizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**ZUBIETA**

**elektragintza**

✓ Motorren bobinaketa  
✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behe  
☎ 76 23 48

# HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea  
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**6** URTEKO  
GARANTIA

## FAGOR




Sukalderako altzariak

ESKAINITZA MUGATUA!!  
HALTZARIk % 40ko DESKONTUAK  
EGINGO DIZKIZU MODELO HAUEK  
EROSTERAKOAN: VERONA, CAPRI,  
NALIA, LINEA eta OXFORD.

ADI  
% 40ko  
DESKONTUAK!!  
ORAIN

APROBETXA ITZAZU HALTZARIk  
FAGORen GARANTIAREKIN,  
ESKAINITZEN DIZUN AUKERA  
PAREGABE HAU.  
ZATOZ LEHEN BAIT LEHEN!!



Inguruko animali ederrenak bilduko dira ferian.

## Mendiko Ganadu Feria ospatuko da Pilareko egunean Elosun

*Bertsolariek, trikitilariak eta txarangak alaituko dute eguna*

Elosuko Auzo eta Jai Batzordeak Azkoitiako Udalaren laguntzaz antolatuta, asteazkenean, Pilareko egunean, Elosuko Mendiko Ganadu feria ospatuko da.

Goizeko 9etan feriarri hasiera emango zaio eta ordubatean sari banaketa egingo da. Ordulaurden beranduago Lizaso eta Gorretxategi bertsolarien saioa izango da eta arratsalderako, berri, Goenatxo II.a eta Korta gaztearen harrijasotze proba iraga-

rrita dago, 5etan. Pasa den igandean, Juan Jose Unanue Goenatxo II.ak 190 kiloko kubiko bereziari, bost minutuko txandan, hamaika jasoaldi eman zizkion, berak eta Perurenak bederatzi jasoaldiekin zuten marka hobetuz.

Asteazkenean, bestalde, egun guztian zehar Laja eta Landakanda trikitilariak eta arratsaldez, txaranga bat arituko da Elosuko giro berezia oraindik gehiago pizteko asmoz.

**Jose Agustin Gurrutxaga** eta **Benito Canterok**, Pol-Pol Argazki Taldeko kideek, lehen eta bigarren sariak lortu dituzte Bartzelonako "Centre Escursionista Martorrell" taldeak Estatu mailan antolatutako mendiko argazki lehiaketan. Zorionak biei lorpen honengatik.

**Ordenagailuetan izandako aberia baten eraginez, aste honetan ezin izan dugu ohizko BERRIGARA kaleratu. Horren ordez, eta herriari gutxienezko informazioa eskaini nahian, ahaleginak egin ditugu lau orriko ale berezi hau kaleratzeko. Erredakzioan izan ditugun arazoak kontutan hartuko dituzuelakoan, eta alde zuzenetik barkamenak eskatuz, datorren ostiralean, ohizko BERRIGARA zuen eskuetara iritsiko delakoan gaude. ERREDAKZIO KONTSEILUA**

**Irargi** Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zentruak *Badator* programaren aurkezpena egin zuen asteazkenean Errekalde Jauregian. Besteak beste, Joseba Arregi Kultur Sailburua, Jaione Gaminde Kultur Ondarearen zuzendaria, Miguel Artola Historia akademikoa eta Borja Aginagalde Irargiko arduraduna izan ziren aurkezpenean. *Badator* datu-basea 25.000 fitxaz osatuta dago eta oso baliogarria izango da XIII. eta XIX. mendeen arteko Euskal Herriko historia hobeto ezagutzeko. Telefono eta ordenagailu batekin *Badator* programaren informazioa jaso ahal izango da. Argibideak 76 28 40/28 41 telefonoetan.

### HILDAKOAK:

Pedro Gardoki Eguren. Irailak 30, 86 urte.

### JAIOTAKOAK:

Maialen Esnaola Albeniz. Irailak 28.

Igor Olañeta Zabaleta. Urriak 1.

### OGIA:

Igandea 9: Konde. Asteazkena 12: Bolintxo.

### FARMAZIAK:

Ostirala 7 MOZOS; larunbata 8 CAMACHO;

igandea 9 CAMACHO; astelehena 10 PUY;

asteartea 11 GUALLAR;

asteazkena 12 ESTELLA; osteguna 13 MOZOS.

## Autoberezi



**FIAT** Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75

**Aske Aisialdi Taldeko**

monitore izateko interesa dutenei, dei egiten zaie ostiralero 20.30etan Sierbetako lokalean egiten den bilerara joateko.

**Bergarako EAJ-PNVk**

igandean Anoeta Kiroldegian egingo den mitinera joateko autobusa antolatu du. Irteera, 10.30etan Beheko Estaziotik. Izen-ematea, Batzokian.

**2.293 zenbakia**

izan da saritua Angiozarko jaietan egindako zozketan. Boletoa jabeak Kanarietarako bi pertsonarentzako bidaia eskuratuko du.

**Dantza ikastaroa**

antolatu du JARDUNek urriaren 22tik abenduaren 3ra. Klaseak larunbatetan 10etatik 12.30etara izango dira eta izen-ematea urriaren 19a baino lehen egin beharko da. Bazkideek 4.000 pta., bazkide ez direnek 4.500.

**Kitarra ikastaroa antolatu du JARDUNeko Gazte Taldeak**

*Mikel Berasategiren eskutik Gartzela Zaharrear*

JARDUNeko Gazte Taldeak urriaren 15etik azaroaren 19ra bi-tarteko larunbatetan Mikel Berasategik emango duen kitarra ikastaroa antolatu du. Mikelek bost bat urte eman zituen Udal Musika Bandan eta Orkestra Sinfonikoan flauta jotzen; ondoren, bere kabuz kitarra jotzeari ekin zion eta beste 4 lagunekin batera *Zaztada* taldea sortu zuten eta gaur egun *Spok* taldeko partaidea dugu. Momentuan flauta, kitarra eta armonia ikasketak egiten ari da Musika Eskolan.

Mikelek berak azaltzen digunez, *"larunbatero lau ordu klase emango ditugu eta nagusiki instrumentoa ezagutzeko izango da. Partaideek base bat hartuko dute eta gero, bakoitzak bere kabuz praktikatzeari komenigarria izango da. Bestalde, solfeoa jakitea ez da derrigorrezkoa"*.

Izen-ematea JARDUN Elkartearen egin beharko da 4retik 9etara urriaren 10a baino lehen. Bazkideek 1.000 pta. eta gainontze-koek 1.500 ordaindu beharko dute.



**JUBILATU PENTSIONISTA**

**BETAURREKOAK:**  
 Lente Graduatuekin: 6.900 pzta.  
 Lente Bifokalekin: 9.900 pzta.

 **OPTICOS ASOCIADOS**en eskaintza da.

**P. Manso**

Irizar Pasealekua, 2

**OPTIKA**

**BERGARA**



**Kotxe zahar ikusgarriak.**

Hoteles Aranzazu kateak antolatutako kotxe zaharren Bilbao-Classic rallya Bergaratik pasa zen asteazken goizean. Bat baino gehiago harrিতa geratuko zen kotxe hain dotoreak herriko kaleetatik ikustean. Donostiatik Labastidara bidean Rolls-Royce, Rover, Jaguar, Triumph... eta beste hainbat modelotako 30 bat

kotxe bisitari izan genituen. Rallya Portsmouthen hasi eta Labastidan bukatzen zen. Itxura batean turismoa promozionatzeko antolatu da eta kotxe gehienek, Bilboko bat kenduta, ingeles matrikula zeukaten. Ikus daitekeenez, gentlemanek ohitura... eta kotxe zaharrenaganako zaletasun handia mantentzen dute.

**BEDELKAR**ek antolatutako hitzaldia astelehenean, 14.30etan Kultur Etxean: "La transmisión entre ordenadores".

**Maite Agirrebeña**ren margo erakusketa Kultur Etxean azaroaren 12ra arte.

**Udal Kirol Zerbitzuak** antolatutako ur-aerobika eta mantenimendu gimnasia uretan ikastaroak dohain izango dira datorren astean bazkideentzat. Informazioa Kirol Zerbitzuan.

**AEK egunerako** (urriaren 16an Tafallan) autobusa aterako da 9.15etan Frontoitik. Izenematea Pol-Pol, Arrano eta Euskaltegian.

Deba Garaiko **Herri Batasunak** antolaturik, igandean, Arrasatetik Bergarara oinezko martxa egingo da. Irteera 16.30etan eta Bergaran ongi-etorria 18.30etan Frontoian. Jarraian jaialdia Espolotan.

# LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**15 urteko eskarmentua, profesionalasuna, beti abangoardian egoten saiatzen gara.**

**LILURA EDERTZE**

**INSTITUTUAN** hainbat tratamendu egiten dira nahiz aurpegiko arazoak konpontzeko: zimurrak, kouperosia, gazteberritzea, tonifikazioa, aknea; nahiz gorputzekoak: formen modelatzea, tonifikazioa, hanketako astutasuna, gehiegizko pisua, zelulitia eta gizentasunerako norberarentzako dietarekin (bakoitzak bere dieta). Gainera, PHYSCOMEDICAL INTERNATIONAL zentruko medikuak hainbat mediku terapia burutzen ditu norbere irudi estetiko eta gorputzekoari laguntzeko eta zuzpertzeko, LILURAN egindako tratamendu estetikoak areagotuz.



LILURA EDERTZE INSTITUTUko pertsonala

Baina pertsona guztiek ez dute tratamendu berezien beharrik. LILURAN, beraz, estetikarekin zerikusia duten iharduera arruntagoak daramatzagu: depilazioa argizariz, (bero eta botatzekoa), depilazio elektrikoa (Blend siste-

ma), aurpegi azalaren garbiketa, manikura, pedikura, atzazalak horzkatzeari lagatzeko tratamendua, norbera makilatzeako ikastaroak; eta aurpegiko nahiz gorputzerako aparailuak ere baditugu.



Argazkian, Javier Fernandez eta Jose Manuel Larrañaga Julian Bernalen aldeko partidua aurkezteko asteartean emandako prentsaurrekoan.

## Reala-Eibar, Julian Bernalen aldeko partidua Agorrosinen

Julian Bernal bergararraren aldeko futbol partidua jokatuko dute Realak eta Eibarrek datorren asteazkenean, hilak 12, arratsaldeko 4 t'erdietan Agorrosinen. Julian Bernalek, gaisotasun baten eraginez, bi hankak galdu zituen eta bere lagunek bateriako silla bat erosi ahal izateko (700.000 pta. inguru balio duena) antolatu dute partidu hau. Julian Bernalek 45 urte eta hiru seme-alaba ditu eta erroberako silla batean dabilenetik etxebizitzaz aldatu behar izan du; lagunek, aurretik antolatutako zozketa batean, 1.850.000 pta. inguruko laguntza lortu zuten. Asteazkeneko partiduko atsedenaldirian, Julio

Elorza baloiaren magoak parte hartuko du. Musika Eskolako Txaranga, berriz, giroa alaitzeaz arduratuko da. Sarrerak 500 pta.tan eta 100 pta.tan (haurrak) jarriko dira salgai herriko hainbat tabernatan (tribunarako 100 pta. gehiago kobratuko dira). Antolatzaileek guztion kolaborazioa eskertu eta partaide guztiei oroigarri bat emango zaiela aurreratu zuten astearteko prentsaurrean.



Julian Bernal

## Asteko pelikulak

**Rapa Nui.** Ostirala: 22.30. Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15. Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**¡Liberad a Willy!.** Larunbata: 17.00, 19.30. Igandea: 11.30 (Matinala).

**The Paper (Detrás de la noticia).** Asteazkena: 17.00, 19.30, 22.15.

**Kafka, la verdad oculta.** Osteguna: 20.00 (Zine-kluba).

## Kirol karteldegia

### FUTBOLA

**Bergara-Beti Gazte.**

Prefente maila.

Igandea. 16.00. Agorrosin.

**Bergara-Miren Bihotza**

Lehen mailako jubenilak.

Larunbata. 16.00. Ipintza.

**Bergara-Almen.**

2. mailako kadeteak.

Larunbata. 11.00. Ipintza.

**Bergara-Ilintxa.**

Lehen mailako infantilak.

Larunbata. 10.00. Ipintza.

**Bergara-Alde Zaharra.**

Emakumezkoak.

Igandea. 11.45. Ipintza.

### ESKUBALOIA

**Bergara-Ei Pilar.**

Senior mutilak.

Larunbata. 18.45. Labegaraieta.

**Bergara-Basauri**

Jubenil neskek.

Larunbata. 17.15. Labegaraieta.

**Bergara-Basauri.**

Kadete neskek.

Larunbata. 16.00. Labegaraieta.

**Bergara-Hondarribia.**

Senior mutilak

Asteazkena. 12.15.

Labegaraieta.

### PELOTA

• Ansotegi eta Oregi /

Nagore eta Azkarate.

• Unanue eta Errasti /

Eugi eta Zezeaga.

• Kalonge eta Errasti /

Badiola eta Galardi

Profesionalak.

Larunbata. 16.30.



## ALDASORO ZAPATADENDA

Zatoz gure eskaparateak ikustera.

Zapata, botin, poltsa eta larru osagarrietan era guztietako modeloak ditugu.

Zapata zabal bereziak: emakume eta gizonentzat.

Gazteentzat aukera ugariak